

CONVERGENCIAKO, EAJKO ETA KOALIZIO KANARIARREKO DIPUTATU BATZUEK BOTOA ALDATU ZUTEN OTSAILAREKIKO

Kongresuak ez du legegintzaldi honetan abortuaren legea zabalduko

Bozketa estua izan zen atzo Espainiako Kongresuan, lege barruan abortatzeko aukerak zabaltzen dituzten legegaiaren eztabaidan. Azkenean, aurkakoak nagusitu ziren, boto bakarraren aldeaz: 173 aurka, 172 alde, eta abstentzio bat. PSOEk nazionalistek jasandako presioak salatu ditu, baina ez du gaia berriz aurkeztuko.



Abortuaren aurkakoak otoitz egiten, atzo, Kongresuaren aurrean.

PACO CAMPOS / EFE

Iker Aranburu / Donostia

ABORTUAREN legea zabaltzeko legegaiak aurkeztu zituzten oposizioko taldeek espero zuten moduan, boto askatasuna zuten diputatu batzuek jarreraz aldatu zuten joan den otsailan, antzeko bozketa batean, azaldu zutenarekiko. Izan ere, otsailan legegaiaren aldeko botoa eman zuten bederatzidiputatu nazionalistetatik seik soilik eutsi zioten bere jarrerari. EAJko Joxe Joan Gonzalez Txabarri eta Koalizio Kanariarreko Paulino Riverok baiezkotzea ezezko bilakatu zuten. EGUNKARIA saiatu zen Gonzalez Txabarriren arrazoiak biltzen, baina diputatu jeltzaleak ez zuten hitz egin nahi izan. Rivero AIC alderdiko kide da, eta boto askatasuna zuten arren, bere alderdiak eskatu zion aurkako botoa emateko.

Convergenciakoen aldetik, otsailan abstenitu zen Ignasi Guardansek ez zuen bozkatu atzo, eta Joan Miquel Nadalek abstentzioa aukeratu zuen baiezkotzea eman beharrean. Convergenciako lauk egin zuten alde: Carles Campuzano, Maria Carme Solsona, Zoila Riera eta Carme Laura Gil. Aurka bozkatu zuten Convergenciako sei eta Unioko bostek.

EAJren aldetik, Iñaki Anasagastik ezezkoa bozkatu zuen, otsailan azaldu ez zen Jon Zabaliak bezalaxe. Aldeko botoa eman zuten, berriz, Margarita Uriak eta Carlos Caballerok. Koalizio Kanariarrean (CC), otsailko aurkako botoa gorde zuten Luis Mar-

donesek eta Jesus Gomezek. Aldeko botoa eman zuen Jose Carlos Mauricio bozeramaileak —otsailan ez zen azaldu—.

Emitza horiek guztiak gertatu ziren PSOEren legegaiaren eztabaidan. Aurretik, atzera bota zituzten besteak ere, tarte handiagoekin. IUk proposatzen zuen abortua libre eta dohainik izatea haurdunaldiaren lehen 16 asteetan; aldeko 167 boto, aurkako 177 eta abstentzio bat jaso zituen. NI-ICrenak eta BNGrenak, berriz, aurkako 177, aldeko 168 eta abstentzio bat jaso zuten. Legelai guztien alde bozkatu zuten PSOEek (140), IUk (16), NI-ICk (5), BNGk (2), EAK (1) eta Plk

(1). Aurka, berriz, PPko 155ek eta UVko bakarrek.


Borrellek dio hauteskundeak arte itxarongo duela PSOEek. Bozketa galdu ostean, kritikatu egin zuen «eskuin parlamentarioen jarrera eta pentsakera», bere iritziz, ez baitator bat «eskuineko emakumeen iritzia-rekin». «Azkenak gara Europar argi dagoen zerbait onartzen: emakumeak direla zenbait baldintzatan beren haurdunaldiak eteteko eskubidea dutenak, nahi izan ez arren, batzuetan horretara behartuta daudelako». Josep Borrell PSOEko lehendakariak zuzentzen zuen bere tal-

Abortuaren zenbakiak

Abortuen kopuruak gora egin du azken urteetan, baina gutxi dira ospitale publikoetan egiten direnak.

- ✱ **391.670 abortu:** 1985ean legea indarrean jarri zenetik 1996ra arte, datu ofizialen arabera, 391.670 abortu egin dira. 1985ean bederatzidiputatu emakumeak abortatu zuten, eta bi urte beranduago jada 16.766 izan ziren. Kopurua urtez urte goratu da, eta 1996an 51.002 izan ziren abortuak. Horiei gehitu behar harko litzaizkieke atzerrian eta ezkutuan egindakoak.
- ✱ **Zentro berezietan abortatzen da.** 1995eko datuek diotenez, urte horretan egindako 49.367 abortuen %90,2 zentro berezi pribatuetan —klinikak abortistak— egin ziren. Ospitale publikoetan %2,39 soilik egin ziren, %7,13 erietxe pribatuetan eta %0,28 ospitaleak ez diren zentro publikoetan.
- ✱ **Gazteenen hiru haurdunalditik bat eteten da.** CSIC Ikerketa Zientifikoen Kontseiluaren azterketa berri baten arabera, 20 urtetik beherako gazteen %33,66k abortatu zuten 1994ean, haurdun geratu ostean. 1995ean kopurua %37ra igo zela uste dute. Euskal Autonomia Erkidegoan batez bestekoa %36,19koa izan zen, eta Nafarroan, berriz, %25ekoa. Azterketa horrek dio gaztetxoek %90ek ez zutelako haurdun geratu nahi.

ABORTUAREN LEGEGAIA



1975az geroztik, abortua legezkotzea da Frantziako haurdunaldiaren lehen 12 asteetan

Integrista elkarteek legearen aurka ekiten dute

Allande Sokarros / Baiona

FRANTZIAN, 1975az geroztik legeztatua da abortua eta 1979an berriz osatua izan zen. Prozesu luze eta neketsu baten ondorioa izan zen, baina, legeztatua denetik, gizartean gehiengo zabalez onartua den egoera da. Simone Veil Osasun ministroak bideratutako proiektuaren ondorioa izan zen, eta eskuineko zein ezkerreko botoak uztartu ziren ontzat hartua izatearren. Lege honek zehazten duenez, abortatu nahi duen emakume batek ospitale edo kliniketako obstetrizian sailetan egin dezake, haurdun den lehen 12 asteetan. Epe honek kanpo ere, abortatu daiteke, baldin eta haurdunaldiaren jarraitzeak amaren bizia arriskuan jartzen badu. Abortua, bestalde, Gizarte Segurantzak %80 heinean ordaintzen du.

Lege honek egoera itzel bati amaiera eman zion —abortatu nahi zuten emakumeak Ingalaterrara joan beharrean izaten ziren—; lege hau gizartean ontzat hartu zen gehiengo zabalez, eta horrek asko lagundu zuen Legebiltzarreko lege finkatzea. Haatik, sektore integrista katoliko batzuek ez dute inoiz amore eman nahi izan, eta Estatu Batuetako ligen bideari jarraituz, ekintzak burutu dituzte abortua gauzatzen duten ospitale, klinika eta medikuen aurka. Ekintza hauek dira, kasu gehienetan, obstetrizian geletan indarrez sartzea eta hango materialei kateatzea. Poliziak ebakuatu arte. Ekintza horietara deitzen duten elkarteak dira, besteak beste SOS Tout Petit eta Laissez les Vivre. Abortuaren aurkako ekintzaile horien buruen artean, berriz, nahiko ezaguna bihurtu dira Xavier Door medikua eta Lejeune mediku nagusiaren alaba.

Eskuinak, berriz, salbuespenak salbuespen, legea ontzat jotzen du, berak onartutakoa baita. ✱

deak ez duela abortuaren legea laugarrenez planteatuko legegintzaldi honetan, eta «hauteskundeak irabazi arte» itxarongo duela.

IUK, berriz, salatu egin du diputatu nazionalistek «lintxamendu morala» jasan izana, eta iragarri du berriro ere saiaturiko dela, araudiak uzten diotenean. Cristina Almeida Nikoak adierazi zuen antiabortisten erruz «berriro ere kalean erasotua sentitzen» zela.

Gobernuak, berriz, ukatu egin zuen nazionalistak presionatu izana. Abortuaren alde egon arren boto diziplinarengatik aurka egin zuen Celia Villalobosek «koldar» deitu zion PSOERI, gehiengo osoa izan zuen 13 urtetan ez zutelako legea aldatu. Villalobosen arabera, PSOEek «emakumeen zorigaitzen erabilera politikoa» egin du.

Presioa berriz kalean • Egun osoan zehar tentsio handia izan zen Kongresuaren ateetan ere. Abortua legeztatzearen aldekoak eta aurkakoak bildu ziren Kongresuaren ateetan beren iritzia adierazteko. Bi taldeen arteko irainak ere izan ziren, eta une batean Polizia tartean jarri behar izan zuen borroka batzuk eteteko. Abortua legeztatzearen aldekoek sustengua adierazi zuten, besteak beste, Borrellek, Rosa Aguilarrek eta Almeidak.

Ricardo Saenz de Ynestrillas ultraeskuindarrak bere burua eskuburdin batzuekin lotu zuen Kongresuaren hesi batean. Poliziak atxilotu egin zuen.